

Tunela



Koldo Aldalur
KAZETARIA

Ez dakit zuei ere gertatu ohi zaizuen, baina ni traumatizatuta nauka amets gaiztoa bailitzan: kotxean noa irratia entzuten, eta fundamentu handirik gabeko hamaika konturen ostean zerbait interesgarria komentatzen hasten diren unean, juxtu une horretan, tunelean sartu eta maldizio ikaragarrien artean, historiaren bukaera galtzen dut.

Ez al da patetikoa? Bakar-bakarrik kotxean tune-laren erdian, belarria luze-luze eginda galtzen ari naizen seinaleari *mekaguenka*. Tunela, beti momenturik txarrean.

Orain dela hilabete gertatuak bereziki sutu ninduen. Euskadi Irratiko arratsaldeko saioan arbitro gazte beltz bati buruz ari ziren. Itxuraz, larunbatean, nerabeen arteko partida bat epaitzen ari zela, guraso batek “kasik hobeia izango zen zure gurasoak pateran zetoze la itsaso erdian ito izan balira”, oihukatu omen zion.

Bale –pentsatu duzue–, tamalez, beste guraso desgaziatu bat bere onetik aterata semeari edo alabari ez diolako arbitroak hain garbia izan den penaltia adierazi. Horrelakoak, tamalez, sarri ikusten ditugu edozein larunbat goizetan.

Eta, esan bezala, segidan zer gertatu zen jakiteko desiratzen nengoela Malmasingo tunela pare-parean.

Jo dezagun arbitroa futbol zelai-erdian zegoela eta astapetro hura harmailetan. Jakina, arbitroak

entzuteko moduan esan bazuen paterarena, ez alferrik bestela, ondoan zeuden denek entzungo zuten, ezta? Hemen hasten dira nire zalantzak eta galderak.

Beste ikusleren bat hurbildu ote zitzaion, belarri ertzetik heldu eta handik ateratzeko “eskatu” beste guraso guztien txalo artean, edo, akaso, ondoko denak konplizitatezko irria egin eta isilik geratu ziren azken finean taldeari laguntze alde-ra egin zuelako egin zuena?

Norbaitek salatu ote zuen klubean edo komi-saldegian gertatu zena, edo, partida amaitu ondoren txorixo mutur bat txakolin batekin hartzera joan ziren ospatzeko beraien taldeak, azkenean eta kostata arbitro beltz hura oso txarra zelako, irabazi zuela.

Zuriak eta beldurtiak gara, zarata handiena egiten duenaren aurka inoiz egiten ez dugunak bakeak iskanbilak baino gehiago balio duelakoan. Beraz, ez dezagun errazera jo eta geure burua zuritu bakearen izenean, isilik geratu ostean, artikululu batean gertatua kontatu dugulako. Konplizeak gara, derrigorrezko piezak intolerantziak bere horretan jarrai dezan. Palmeroak, epelak, zuriak.

Beraz, zuetariko norbait orain hilabeteko larunbat goiz hartan arbitro beltz bat zuen partidari izan bazineten, esadazue mesedez nola bukatu zen kontua.

Bestela tunel beltzean jarraitu beharko dut. ■

Damnatuak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Rieux medikuak, Albert Camusen *Izurria* nobelaren une batean, argiki erraten du, norberak ez duela bakarrik, besteak gabe, zoriontsu izan nahi. Epidemian, metafora gisa hedatzean, lekuri ez da bekaizkeria erantzut. Bide nabar uste dut Camus handiak nolabait hazi ninduela idazle, hamabi urtetan *Arrotza* irentsi nuenean. Labanaren distira gogoan dut oraindik.

Zorion bakartiaz gozatu dezake gorrotoak darioan pertsonak. Ahalaz eta hobe gorroto gaztea, garbia, gardenen baldin bada. Kari horretara, duela gutxi, ikusi dut, fazinaturik, Ivo Van Hove antzerki zuzendariak Viscontiren *The Damned*

filmaz egin teatrorako adaptazioa. Avignonetik zuzenean. Gorrotoa hemen, odol arrasto mardulak uzten dituen sentimendua da, garai guztietako, nazien denboratik gaurko urtaro sarraskitu hauetaraino. Taula gaineko azken bizidunak publikoak metrailatzen du, Parisko atentatuak oroitaraziz: uhergarria.

Egia da, sare sozialen indarrarekin norbera zoriontsu izan daitekeela bere pantaila zikoitzaren aitzinean, irain ausarkiak eta gorroto anonimoak zilegi direla, Rieux medikuak ere sendatzea lortuko ez duen errealitatea kutsatzeko eta zitaltzeko beti prest.

Damnatuak gara (bakantza on!). ■